## KULTURA SAILA

## 2908

AGINDUA, 2008ko apirilaren 23koa, Kultura sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko «Gure Artea» sarietarako 2008ko deia egiten duena.

2003ko ekitaldian, Kultura sailburuak 2003ko abenduaren 23ko 332/2003 Dekretua eman zuen, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko «Gure Artea» sariak arautzen dituena (2003ko abenduaren 31ko EHAA, 255. zenbakia). Hori dela eta bidezkoa da, dekretu horretan aurreikusitakoaren arabera, Sari horietarako —2008ko ekitaldiari dagokion edizioan— deia egitea.

Horiek horrela,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Agindu honen helburua 2003ko abenduaren 23ko 332/2003 Dekretua, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko «Gure Artea» sariak arautzen dituena (2003ko abenduaren 31ko EHAA, 255. zenbakia) 2008ko ekitaldian aplikatzeko xedapenak ematea da, eta Sari horien deia egitea, 2008ko edizioari dagokionez.

*2. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

«Gure Artea» sarietako 2008ko edizioaren deialdian parte hartu nahi duenak hilabeteko epea izango du eskabidea aurkezteko, honako Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

*3. artikulua.–* Hautagaiak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Ezingo dira «Gure artea» sarietara aurkeztu (kasuan kasuko zigorrak ezartzen duen aldian) laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten pertsona fisikoak, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik dutenak ere, sexu-bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azkeneko seigarren xedapenean xedatutakoaren indarrez.

2.– Parte hartzeko eskabideak, agindu honetan agertzen den eranskinaren ereduari jarraituz, hona igorri beharko dira: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritza (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz); Kale Nagusia, 85. behea, 48011 Bilbao; edo Andia kalea, 13. behea, 20004 Donostia-San Sebastián (Aip.: Gure Artea). Horrekin batera, dekretu arautzailearen 3.1 artikuluan eta eskabide ereduan bertan eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 2908

ORDEN de 23 de abril de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se efectúa la convocatoria de los Premios «Gure Artea», para la promoción de las artes plásticas y visuales, en su edición 2008.

En el ejercicio 2003 se dictó el Decreto 332/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan los Premios «Gure Artea», para la promoción de las artes plásticas y visuales (BOPV n.º 255, de 31 de diciembre de 2003), por lo que procede la convocatoria de dichos Premios en su edición de 2008 de acuerdo con lo previsto en dicho Decreto.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente Orden dictar las disposiciones de aplicación, en el ejercicio 2008, del Decreto 332/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan los Premios «Gure Artea», para la promoción de las artes plásticas y visuales (BOPV n.º 255, de 31 de diciembre de 2003), efectuando la convocatoria de dichos Premios en su edición de 2008.

*Artículo 2.–* Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para participar en la convocatoria de los Premios «Gure Artea», en su edición de 2008, será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden.

*Artículo 3.–* Candidaturas y documentación a presentar.

1.– No podrán concurrir a los Premios Gure Artea, durante el período que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas que se encuentren sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– Las solicitudes de participación se realizaran según el modelo que se incluye como anexo junto con la documentación requerida en el artículo 3.1 del Decreto Regulador y recogida en el modelo de solicitud, a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz; calle Gran Vía, 85 bajo. 48011 Bilbao, o calle Andia, 13 bajo. 20004 Donostia-San Sebastián (Ref.: Gure Artea), directamente

da. Hau dena zuzenean edo azaroaren 26ko 30/1992 Legean —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan— aurreikusitako beste bideren bat erabiliz egin ahal izango da.

*4. artikulua.*– Aukeratutako lanak aurkeztea.

Aukeratutako lanak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak horren berri eman ondoren, helbide honetan aurkeztu beharko dira: Rekalde Aretoa (Rekalde Zumardia, 30, 48009 Bilbao), 2008ko irailaren 24an edo 25ean. Lan hauek, areto horretan, urriaren 9an inauguratu eta azaroaren 30era arte iraungo duen talde-erakusketa osatuko dute.

*5. artikulua.*– Diru-baliabideak.

Agindu honen bidez deitutako sarietarako, 2008ko ekitaldian, 49.998,00 euro erabiliko dira, hiru sari berdinetan banatuta, bakoitza 16.666,00 euro gordinekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu atalaren kontura.

*6. artikulua.*– Arautegia onartzea.

«Gure Artea» Sarien deialdi honetan parte hartzeak sari hauek arautzeko ezartzen diren arau guztien onartze osoa dakar berarekin.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Administrazio bidea amaitzen duen Agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete Kultura sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete EAEko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

***Bigarrena.***– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 23a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

o por cualquiera de los procedimientos previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.*– Presentación de las obras seleccionadas.

Las obras seleccionadas, previa comunicación del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, deberán presentarse en el Sala Rekalde, Alameda Rekalde 30. 48009 Bilbao, el 24 o el 25 de septiembre de 2008, para formar parte de la exposición colectiva que se inaugurará en este Centro el 9 de octubre y permanecerá hasta el 30 de noviembre.

*Artículo 5.*– Recursos económicos.

Se destina al objeto de los Premios a los que se refiere la presente Orden, durante el ejercicio 2008, la cantidad de 49.998,00 euros, distribuida en tres premios iguales dotados con 16.666,00 euros brutos cada uno, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

*Artículo 6.*– Aceptación de la normativa.

La participación en la presente convocatoria de los Premios «Gure Artea» supone la aceptación plena de todas las normas que los regulan.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

***Segunda.***– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ERANSKINA/*ANEXO*

GURE ARTEA 2008

Izen-emate orria / *Impreso de inscripción:*

EGILEA/*AUTOR:*

| | |
|---|---|
| Izena eta bi abizenak / *Nombre y dos apellidos:* | NAN/*DNI:* |

HARREMANETARAKO DATUAK / *DATOS PARA CONTACTO:*

| | | |
|---|---|---|
| Helbidea/*Dirección:* | | |
| Posta-Kodea / *Código postal:* | Herria/*Localidad:* | Telefonoak/*Teléfonos:* |
| Posta elektronikoa / *Correo electrónico* | Web orria / *Página web:* | |

JAIOLEKUA ETA ADMINISTRAZIO AUZOTASUNA
*LUGAR DE NACIMIENTO Y VECINDAD ADMINISTRATIVA:*

| |
|---|
| Jaioterria / *Localidad de nacimiento:* |
| Bizilekua / *Localidad de residencia:* |

AURKEZTEN DITUEN OBRAK / *OBRAS PRESENTADAS:*

| | | |
|---|---|---|
| 1. Lana / *Obra n.º 1* | Izenburua/*Título:* | |
| Urtea/*Año:* | Teknika/*Técnica:* | |
| Neurriak edo iraupena / *Medidas o duración:* | | Balorazio ekonomikoa / *Valoración económica (euro/euros):* |

| | | |
|---|---|---|
| 2. Lana / *Obra n.º 2* | Izenburua/*Título:* | |
| Urtea/*Año:* | Teknika/*Técnica:* | |
| Neurriak edo iraupena / *Medidas o duración:* | | Balorazio ekonomikoa / *Valoración económica (euro/euros):* |

| | | |
|---|---|---|
| 3. Lana / *Obra n.º 3* | Izenburua/*Título:* | |
| Urtea/*Año:* | Teknika/*Técnica:* | |
| Neurriak edo iraupena / *Medidas o duración:* | | Balorazio ekonomikoa / *Valoración económica (euro/euros):* |

| | | |
|---|---|---|
| 4. Lana / *Obra n.º 4* | Izenburua/*Título:* | |
| Urtea/*Año:* | Teknika/*Técnica:* | |
| Neurriak edo iraupena / *Medidas o duración:* | | Balorazio ekonomikoa / *Valoración económica (euro/euros):* |

Erantzukizunpeko Adierazpena / *Declaración responsable*

Hautagaiak ez du zigor administratibo edo penalik diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere, sexu-bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azkeneko seigarren xedapenean xedatutakoaren indarrez.

*La persona candidata no está sancionada administrativa ni penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas ni se halla incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite par ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

.......................................... en, 2008ko ........................ aren-.......... (a)n

*En ...................................., a....... de .................................. de 2008*

Sinadura/*firma*

Oharra:

Eusko jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren erabili ahal izateko.

Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bakarrik erabiliko du, berak sustatutako dirulaguntzak kudeatzeko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

*Nota:*

*La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.*

*El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Promoción de la Cultura, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:
*DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR:*

Izen-emate orria sinatuta.
*Impreso de inscripción firmado.*

NANaren kopia edo/eta EAEko administrazio auzotasun-agiria.
*Copia del DNI y/o certificado de vecindad administrativa en la CAE.*

Arte curriculuma.
*Curriculum artístico.*

Arte lanen dokumentazioa (4 arte-lan):

– Koloretako argazkiak, 18 x 24 cm-koak. Argazki bakoitzaren atzeko aldean izen-abizenak, izenburua, teknika eta lanaren neurriak zehaztuko dira (gehienez 3 metro).
– DVD euskarrian aurkezten diren lanak formatu estandarrean erabilgarriak izango dira.
– CD euskarrian aurkezten diren lanak PC-an erabilgarriak izan behar dira.
– Bideo euskarriko lanak VHS formatuan aurkeztuko dira.
– Instalazioen kasuan, deskribapena gaineratuko da.

*Documentación de las obras (4 obras):*

– *Fotografías color, 18 x 24 cm: al dorso de cada fotografía se indicarán nombre y apellidos del autor, título, técnica y dimensiones de la obra (no excederá de 3 metros).*
– *Los trabajos en DVD se presentarán en formato estándar.*
– *Los trabajos en CD se presentarán en soporte PC.*
– *Los trabajos en soporte vídeo se presentarán en formato VHS.*
– *En caso de instalaciones, se adjuntará descripción.*